

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-
ZERBITZUAK, MANTENU ETA BERME OSOAREKIN**

KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (7)

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Intxausti kaleko batzar gelan, 2017ko uztailaren 13an, goizeko 8:00ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburua
Amaia Elorza Elortegi A^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udal Idazkaria
Eduarne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Batzar honetarako, Zerbitzu saileko teknikaria, aholkulari moduan, egotea eskatu da.

Aurreko kontratazio mahaiaren batzarrean, lizitatzailerei C2 gutun azalean jarritako zifren zergatiaren azalpena emateko bidali zitzairen errekerimendua gogorarazten da. Errekerimendu horretan, eskatutako informazioa derrigorrezkoa zela adierazten zen, hori egin ezean, lizitatzailera lizitaziotik kanpo geratuko zela jakinarazten zitzaielarik.

Eskatutako dokumentazioa aztertzeko, 2017ko apirilaren 7an Zerbitzu Sailaren Zinegotzi Delegatuaren 8. zenbakidun dekretuaren bidez, Luis Miguel Navarro Zapatero jaunari (*SIAR INGENIERÍA*) Kontratazio Mahaiari laguntza tekniko esleitu zitzaion.

Honako enpresek informazio errekerimendua bete dute:

- *Tecuni, S.A.*
- *UTE FCC, S.A. - FCC Industrial e infraestructuras energéticas, S.A.U. – Soprener, S.L.*
- *Sociedad Iberica de Construcciones Eléctricas, S.A.*
- *Clece, S.A.*
- *Valoriza Facilities, S.A.U.*
- *Imesapi, S.A.*



Aditu teknikoak egindako txostena eta bere ondorioak kontratazio mahaikideei helarazten zaizkie. Azterketa teknikoaren ondorioak honako hauek dira:

"Ante la argumentación de dos Licitadores, es necesario aclarar si procede jurídicamente la solicitud de justificaciones, la exclusión de las empresas que no han contestado al requerimiento y la exclusión de las empresas que presenten una justificación incoherente de sus propuestas conforme a los Pliegos.

En comentarios descritos sobre los documentos aportados por los Licitadores se detectan aspectos que exigen una revisión en más profundidad. Algunos se han podido aclarar con comprobaciones en el sobre B y en otros casos se deberá determinar si se solicita a los Licitadores ampliar sus justificaciones o desestimarlas.

Una vez analizada la documentación de los Licitadores se detecta que no todos presentan, tal y como establece el requerimiento, un estudio técnico-económico donde se exprese claramente para cada prestación el origen de todas las cifras indicadas en el sobre C2.

Concretamente las empresas CLECE, UTE FCC-SOPRENER Y TECUNI lo justifican de acuerdo al requerimiento de la Mesa de Contratación, pero IMESAPI, SICE Y VALORIZA FACILITIES no expresan claramente el origen de todas las cifras indicadas en el sobre C2, por lo que el técnico que suscribe propone la desestimación de las ofertas de estos Licitadores."

Goian aitaturakoa kontuan hartuta, **Kontratazio Mahaia**k erabaki hau hartzen du:

BAKARRA: Laguntza Teknikoak egindako txostena ontzat ematea eta lizitazio prozesua hurrengo enpresekin jarraitzea, gainontzeko enpresak kanpoan ixten direlarik.

- *Tecuni, S.A.*
- *UTE FCC, S.A. - FCC Industrial e infraestructuras energéticas, S.A.U. – Soprener, S.L.*
- *Clece, S.A.*

Erabaki hau hartu ondoren, prozesuarekin jarraitzen da eta aditu teknikoak egindako txostenean oinarrituta, Zerbitzu Saileko teknikariak C gutun azalei buruzko balorazioa egiten du honako hau adieraziz:

"Eskaintzetan jasotako dokumentazioaren azterketaren balorazioa, oker edo hutsik ezean, honako hau da:"



Zk.	ENPRESA	PUNTUAK (0-50)	C1				C2			ESKAITZAREN PUNTUAZIOA	
			AURREZPENAREN GAINEKO EHUNEKO GEHIGARRIA (0-10)		P4 GAUZATZEKO EPEAREN URRITZEA (0-2)		ESKAITZA EKONOMIKOA (0-38)				
			Ehuneko gehigarria %	PUNTUAK (0-10)	P4 gauzatze epea	P4 gauzatze epearen urritzea	PUNTUAK (0-2)	Eskaintza ekonomikoa (urteko)	Eskaintza ekonomikoa (kontratua)		PUNTUAK (0-38)
1	TECUNI, S.A.	47,00	90,00	10,00	14	12	0,00	257.278,93 €	3.087.347,16 €	0,00	57,00
2	CLECE, S.A.	16,00	90,00	10,00	16	10	0,00	186.354,68 €	2.236.256,16 €	27,57	53,57
3	UTE FCC,S.A- FCC Industrial - SOPRENER	15,75	90,00	10,00	12	12	2,00	200.599,38 €	2.407.192,56 €	22,03	49,78

Balorazioa egin ondoren Zerbitzu Saileko teknikariak honako proposamena luzatzen dio Kontratazio Mahaiari.

“BAKARRA: Txosten honetan jasotakoa Kontratazio Mahaiari jakinaraztea eta adierazitakoa aintzat hartuz gero, Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta berme osoarekin kontratua Tecuni, S.A. enpresari esleitzeko proposamena egin diezaiola Kontratazio Organoari.”

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau proposatzen da:

LEHENA: Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta berme osoarekin kontratua Tecuni, S.A. enpresari esleitzeko proposamena egitea.

BIGARRENA: Hemen jasotakoa **Kontratazio Organoari (Osoko Bilkura)** bideratzea dagozkion ondorioetarako.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

